

IRABAZI ITURRIAK

- Aktiboen salmenta
- Erabileragatiko saria
- Harpidetzagatiko saria
- Mailegua, rentinga eta alokairua
- Lizentziak
- Broker edo komisio bidezko sariak
- Publizitatea

kar-car-kar-en diru-sarrerak nagusiki erabileragatiko sariak, publizitatea eta harpidetzagatiko sariak izango dira. Helburua ez da soilik auto partekatzeko zerbitzua eskaintzea, baizik eta jasagarria eta berritzailea den sistema bat garatzea, bai ingurumenari bai erabiltzaileei mesede eginez.

Lehenik eta behin, erabileragatiko saria izango da diru-iturri nagusia. Erabiltzaileek ordainduko dute ibilgailua erabiltzen duten denboraren edo kilometroaren arabera, zerbitzua malgua izanik erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokituz. Modu horretan, erabileraren handiena duten bezeroek ere abantaila bereziak lor ditzakete, eta zerbitzuaren erabileraren eta etekinaren orekatzen dira.

Bigarrenik, publizitatea izango da beste iturri garrantzitsu bat. Aplikazioan, webgunean edo ibilgailuetan iragarkiak jarriko dira, betiere jasagarritasunarekin bat datozen enprekin. Horrela, irabaziak lortzeaz gain, balio positiboak sustatzen dira, eta erabiltzaileek merkataritza arduratsu eta ingurumenarekiko errespetuzko eskaintzak jasoko dituzte.

Azkenik, harpidetzagatiko sariak erabiltzaile fidelak sortzeko eta komunitate iraunkor bat eraikitzeko modua dira. Hilabete edo urteko kuotaren truke, erabiltzaileek abantaila eskusiboak jasoko dituzte, hala nola deskontuak, lehentasuneko erreserbak, puntu-sistemaren bidez sariak edo ibilgailu elektriko berrietarako sarbidea. Hori guztia erabiltzaileek zerbitzua euren eguneroko bizitzaren parte bezala ikusi dezaten diseinaturik dago, konfiantza eta leialtasuna indartuz.

Laburbilduz, kar-car-kar-en irabaziak erabileraren ordainketetan, publizitate jasagarrian eta harpidetza-zerbitzuetan oinarrituko dira, guztia mugikortasun partekatuaren eta ingurumenarekiko konpromiso sendo baten alde eginez.

Gainera, udal eta foru aldundietako subentzioak izango dira kar-car-kar-en diru-sarreraren beste iturri garrantzitsu bat. Subentzio hauek ingurumenari eta garraio jasagarrian oinarritutako proiektuak sustatzeko ematen dira, eta laguntza horri esker enpresak ibilgailu elektrikoak edo partekatzeko sistemak garatzeko eta mantentzeko beharrezko inbertsioa egin dezake. Horrez gain, subentzioek proiektuaren hasierako kostuak murrizten laguntzen dute, prezioak erabiltzaileentzat eskuragarriagoak bihurtuz eta komunitatean mugikortasun jasagarria sustatuz.

